



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

# Konpetentzia Digitalak

## Graduko ikasleentzako formakuntza materialak

### 2. Komunikazioa eta lankidetza

#### 2.3. Teknologia digitalen bidezko lankidetza:

#### **2.3.2. Google Drive, lankidetza tresna moduan**

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala



Bestelakorik adierazi ezean, itemaren baimena horrela deskribatzen da: Aitortu-EzKomertziala 3.0 Espainia, 2020

Komunikazioa eta  
lankidetza.  
Teknologia digitalen  
bidezko lankidetza

# GOOGLE DRIVE

## LANKIDETZA TRESNA MODUAN




**CRUE**

**REBIUN**

Red de Bibliotecas Universitarias

# HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



## LABURPENA

- Funtzioak
- Sarbidea
- Edukia Gehitu
- Dokumentuak sortu
- Dokumentuak antolatu
- Lankidetzak
  - Dokumentuak partekatu
  - Dokumentuak editatu
  - Atzeraelikadura eman eta jasotzea
  - Aldaketen eta bertsioen kontrola


# FUNTZIOAK

Google Drive hodeian (cloud computing) oinarrizten den fitxategiak gordetzeko zerbitzua da, eta Googlek garatutako produktibitate nahiz lankidetzeta-aplikazioen suite-aren parte da.

Hauek dira funtzionalitate nagusiak:


- Fitxategiak biltegitratzea eta sinkronizatzea
- Dokumentuak linean sortzea
- Karpetak eta dokumentuak partekatzea
- Linean lankidetzan editatzea

LANKIDETZA



# SARBIDEA

Google Drive-ra sartzeko, Google kontu bat izan behar da.



The image shows a screenshot of the Google Drive sign-up page. At the top, the Google logo is displayed. Below it, the text reads "Hasi saioa" (Sign in) and "Joan Google Drive zerbitzura" (Go to Google Drive service). There is a text input field with the placeholder text "Helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia" (Email address or phone number). Below the input field, there is a link that says "Helbide elektronikoa ahaztu zaizu?" (Forgot your email address?). At the bottom, there are two buttons: "Sortu kontu bat" (Create an account) and "Hurrengoa" (Next).

Honako hauetatik sartu eta sinkroniza daitezke fitxategiak:



Web-plataforma




Mahaigaineko aplikazioa




Gailu mugikorak

# EDUKIA GEHITU

*Kargatu fitxategiak/Kargatu karpeta funtzionalitatearen bidez, fitxategiak edo karpetak web-zerbitzuaren bidez igo daitezke.*



Idazmahaitik fitxategiak nahi den unitate edo karpetan arrastatu eta askatzeko aukera (*drag and drop*) ere erabil daiteke.



# DOKUMENTUAK SORTU

Google Drive-n, aplikazio integratuak erabiliz, hainbat dokumentu-mota sor daitezke:


1

Sakatu  botoia edo

Nire unitatea ▾

2

Sortu beharreko dokumentu-mota hautatu




Aplikazioa	Izena	Dokumentu mota
	Google-ren dokumentuak	Testu-dokumentuak
	Google-ren kalkulu-orriak	Kalkulu-orriak
	Google-ren aurkezpenak	Diapositiben aurkezpenak



# EDUKIAK ANTOLATU

Dokumentuak karpetak sortuz edo igoz antola daitezke. Ondoren, zure unitatean aurkituko dituzu, eta horien edukian fitxategiak eta azpikarpetak gehitu ahalko dituzu:

**1** Sakatu  botoia edo  
Nire unitatea ▾

**2** Antolaketa modua aukeratu



**3** Karpetak sortu

Nire unitatea ▾

Karpetak



3º GRADO\_Proyecto Gast...



COVID-19



ERP - P

**4** Gehitu fitxategiak eta azpikarpetak karpeta berrietan

Nire unitatea > 3º GRADO\_Proyecto Gastronómico ▾

Karpetak




Grabazioak


Izena ↑

# LANKIDETZA: DOKUMENTUAK PARTEKATU

Google Drive-n gordetako edukia parteka daiteke, beste batzuek ikusi, iruzkindu edo editatu dezaten:

## 1 Hautatu partekatu nahi duzun fitxategia



Aukerak, saguaren eskuineko botoia (web/PC) edo  ikonoa (gailu mogikorak) sakatzean ikusiko dituzu

## 2 Aukeratu nola partekatu



### Partekatu

Fitxategia Google kontua duten pertsonekin partekatzeko aukera ematen du.



### Esteka bidali

Posta elektronikoaren edo berehalako mezularitzaren bidez fitxategira sartzeko esteka bat partekatzeko aukera ematen du, hartzaileak Google konturik izan beharrik gabe. Kasu horretan, hartzaileak dokumentua ikusi ahal izango du, baina ez editatu.



### Gonbidatu

Fitxategia partekatzen duzun pertsona horrek Google konturik ez badu, gonbidapen bat bidal diezaiokezu kontu bat sortu, eta dokumentuaren edizioan ere parte hartu ahal izan dezan.

# LANKIDETZA : DOKUMENTUAK PARTEKATU

## 3 Aukeratu norekin partekatu

Compartir mediante enlace: activado

Cualquier usuario con el enlace puede ver

<https://drive.google.com/open?id=1n1k8LI6g>

Permisos

Compartir con otros

Obtener enlace para compartir

Personas

esther@universidad.es x carlos@universidad.es x

Añadir a más personas...

Enviar Cancelar

Avanzado

## 4 Sartzeko baimenak eman

Compartir con otros

Obtener enlace para compartir

Personas

esther@universidad.es x carlos@universidad.es x

Añadir a más personas...

Enviar Cancelar

- Puede editar
- Puede comentar
- Puede ver

**Sarbide-maila**

**Ekintza onartuak**

Ikus dezake

Ikusi eta deskargatu

Komenta dezake


Ikusi, deskargatu eta komentatu







Edita dezake

Ikusi, deskargatu, komentatu eta editatu






# LANKIDETZA :

## Dokumentuak editatu



Práctica 2 ☆      

Archivo Editar Ver Insertar Formato Herramientas Complementos Ayuda

100% Texto nor... Arial 12 B I U A     

1 2 1 1 1 1 1 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18

### 5.1 Definición

Tor (The Onion Router) es un software libre de encaminamiento de tráfico llamado onionrouting que tiene como fin hacer anónimas las comunicaciones en Internet contra la censura y el control. Fue diseñado originalmente como un proyecto del Laboratorio de Investigación Naval de los Estados Unidos.

Tor proporciona un túnel de comunicación anónimo diseñado para resistir a ataques de análisis de tráfico (traffic analysis). Por esta razón, Tor hace que sea posible que pe Mario G. alizar una conexión a un equipo sin que éste o ningún otro equipo sea ca

### 5.2 Funcionamiento

La red se compone de una serie de nodos que se comunican entre sí mediante el protocolo TLS sobre TCP/IP lo que le hace mantener la información de una forma secreta e íntegra desde un nodo a otro. Se pueden diferenciar dos tipos de entidades:

- Nodos TOR
- Elena A.

Hartzaileak dokumentu bat partekatzeko gonbidapena onartzen duen unetik hasi daiteke elkarlaneko edizioa.








Dokumentu bat beste batzuekin lankidetzan edita dezakezu, bai modu asinkronoan bai aldi berean ere.

Aldi bereko edizioaren kasuan, edizio aplikazioak denbora errealean hainbat koloretako kurtsoarekin erakutsiko du zer ari diren editatzen zure lankideak.

Egindako aldaketak automatikoki gordetzen dira.

# LANKIDETZA : ATZERAELIKADURA

Dokumentuak lantzean, hainbat aukera daude zure taldekideekin komunikatzeko:

Ekintza	Komunikazioa	Deskribapena	Ikuspegia
Txat-a 	Sinkronoa	Denbora errealeko komunikazioa editore batzuk dokumentura aldi berean sartzen direnean aktibatzen da.	Mario G.: Estoy terminando mi parte Elena A.: Ok. Sigo con la mía
Iruzkindu 	Asinkronoa	Hitzak edo paragrafoak hautatuz, edozein kolaboratzailek erantzun edo ebatz ditzakeen iruzkinak gehi ditzakezu. Zure kolaboratzaileetako bat aipatzeko, @ edo + ikurrak erabiltzen dira, eta horiek mezu bat jasoko dute.	
Esleitu zeregina 	Asinkronoa	Iruzkin batean zure laguntzaileetako bat aipatzen duzunean, zeregin bat esleitzeko aukera duzu. Jakinarazpen bat jasoko du posta bidez, eta bera izango da zeregina amaitutzat eman dezakeen bakarra.	
Iradoki edizioa 	Asinkronoa	Hitzetan edo paragrafoetan egindako aldaketak edizio-iradokizun bihurtzen dira, <b>Ordezkatu</b> : “A hitza” “B hitza <b>gatik</b> ” bezalako iruzkin baten bidez. Laguntzaileek iradokizunak onartu edo baztertu ditzakete.	

# LANKIDETZA : ALDAKETEN KONTROLA

Dokumentu baten edizioan aldaketak egiten direnean, Drivek automatikoki gordetzen ditu aldaketak.

Aldaketa guztiak Driven gorde dira

Beste kolaboratzaile batek egin badu azken aldaketa, Drivek noiz gertatu den eta nork egin duen adieraziko du.

Elena A.ren azken aldaketa duela 36 minutu

Dokumentu batean berriro sartzen zarenean, aldaketa berrienak ikus ditzakezu.

Azken aldaketak ikusi

Dokumentuko azken aldaketei buruzko edozein informazioaren gainean klik egitean, bertsioen historikora sar zaitezke.

Cambios desde el 1 de agosto, 14:30

[VER EL HISTORIAL COMPLETO](#)

Bertsioen historian, dokumentua sortu zenetik egindako aldaketa guztiak agertzen dira, noiz eta nork egin zuen azaltzen duen informazioarekin.

Historial de versiones

Mostrar solo las versiones con nombre

Hoy

2 de agosto, 9:55  
Versión actual  
Mario G.

► **Versión 2.0** ⋮  
2 de agosto, 9:03  
Elena A.

julio

Versión inicial  
10 de julio, 16:31  
Mario G.

Hemendik, honakoa egin dezakezu:

- Dokumentuan egindako aldaketa bakoitza ikusi
- Bertsioei izena jarri
- Bertsioaren kopia bat egin
- Bertsio jakin bat berrezarri

[RESTAURAR ESTA VERSIÓN](#)

# GEHIAGO JAKITEKO...

Begiratu Googleko [nola erabiltzen hasi Google Drive](#) atala.



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center**

**Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101  
20009, Donostia, Gipuzkoa.  
T. 943574514  
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2  
20560, Oñati, Gipuzkoa.  
T. 943718009  
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea**

**Biblioteka**

Dorleta, z/g.  
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.  
T. 943714157  
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa**

**Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.  
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.  
T. 943794700  
biblioteca.mgep@mondragon.edu